

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### Zk-548

3/1999 LEGEA, azaroaren 26koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez (Hutsen zuzenketa).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.1 artikuluan xedatzen duenez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzari dagokio aldizkarian argitaratutako testuetan egindako tipografia edo inprimaketa hutsak zuzentzea, nahiz bere kabuz nahiz doakion organo edo erakundeak eskatuta, baldin eta hutsak xedapenen esanahia aldatu edo horiei buruzko zalantzak sortzen badituzte.

Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko Legea aldatzen duen azaroaren 26ko 3/1999 Legea 1999ko abenduaren 30ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (249 zk.). Legearen idazpuruan aipatutakoen moduko hutsak gertatu zirenez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

– Legearen idazpuruan (21453, 21445 eta 21456 orrialdeak), hau dioenean:

«3/1999 Legea, azaroaren 16koa, ...»

Hau esan behar du:

«3/1999 Legea, azaroaren 26koa, ...»

### KULTURA SAILA

#### Zk-549

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 24koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua onartuz, erreferentzi marko obligaziozkoa izan dezaten HABE Erakunde Publikoak diruz lagundutako euskaltegiek.

HABEri dagokio, besteak beste, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko kurrikuluak sortu, diseinatu eta ezartzea, irizpide sozio-linguistikoak kontuan hartuz eta plangintza egokiak eginez; izan ere, eskumen hori ematen diote, batetik, azaroaren 25eko 29/1983 Legeak,

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-548

LEY 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa (corrección de errores).

El artículo 24.1 del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento rectificará de oficio o a instancia del órgano o entidad interesado los errores tipográficos o de impresión que se produzcan en la inserción de los textos publicados, siempre que supongan alteración o modificación del sentido de los mismos o puedan suscitar dudas al respecto.

Advertidos errores de dicha índole en el Título de la Ley 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 249, de 30 de diciembre de 1999, se procede a su corrección:

– En el título de la Ley (páginas 21453, 21445 y 21456), donde dice

«Ley 3/1999, de 16 de noviembre,...»

debe decir:

«Ley 3/1999, de 26 de noviembre,...»

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

#### Nº-549

ORDEN de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura, por la que se aprueba el nuevo Currículo Básico para la Enseñanza de Euskera a Adultos, como marco de referencia obligatorio en los euskaltegis subvencionados por el Organismo Público HABE.

De conformidad a lo dispuesto por la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis, y conforme a lo establecido en el decreto 34/1996, de 13 de febrero, por el que

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Arautzekoak (2,d artikulua), eta, bestetik, otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak, HABEren arau organikoak onartzen dituenak (8,a artikulua).

HABEk sorreratik taxutu ditu euskalduntzeko programak. Hor ditugu, esaterako, «Helduen euskalduntzerako programazioa» (HABE, 1981) eta «Helduen euskalduntzea programatzen-84» (HABE, 1983). Ondoren, 1987ko urtarrilaren 7ko Aginduaz, ezarri ziren euskalduntzeko lehen zortzi mailetako edukiak eta ebaluaziorako irizpide oinarritzkoak; eta gero 1989ko azaroaren 17ko Aginduak ordezkatu zituen, helduen euskalduntzeko Programa ezarri baitzuen, euskalduntzearen hamabi urratsetako banari zegozkion gaitasunak eta hizkuntz edukiak finkatuz.

Ezarri zenez geroztik hamar urte joanda, egoki irizti zaio azken Programa hori berrikusteari eta kurrikulu-arau egunekoetara moldatzeari. Horretarako, euskaltegiek azaldutako beharrak kontuan hartuz, HABEren Batzorde Akademikoaren aholkuak entzun ondoren, eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak kurrikulua berritzeko egin zuen proposamenari erantzunez, «Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua» deritzon proposamena landu da, eta HABEren Zuzendaritza Batzordeak formulatu du 29/1983 Legeko 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Oinarrizko Kurrikulua dokumentu bat da, euskararako irakaskuntzaren helburu eta edukiak azaltzen dituena, hizkuntzaren irakas- eta ikas-printzipioetan oinarrituta. Lan-proposamena da, euskaltegien lan-gida izan nahi duena. Dokumentu ireki eta malgu da; euskaltegiek eta irakasleek gauzatu beharko baitute, ikastegiaren, inguruaren eta ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz.

29/1983 Legeko 20. artikulua arabera, Hezkuntza eta Kultura Sailari dagokio, besteak beste, HABEren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, euskaltegietan ematen den irakaskuntzaren ordenamendu orokorra. Horren kariaz, Euskal Herriko Autonomia Erki-degoko Administrazioaren Erakunde Autonomo hori Kultura Sailari atxikita dagoenez,

EBATZI DUT:

**1. artikulua.** – Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua onartzea, Agindu honetako Eranskinean azaltzen den eran.

se aprueban las normas orgánicas de HABE, a este Instituto, entre otras funciones, le corresponde la creación, diseño y posterior aplicación de los diseños curriculares de euskaldunización y alfabetización de la población adulta, procurando una planificación racional y teniendo en cuenta criterios de tipo socio-lingüístico (artículo 2, d, Ley 29/1983 y artículo 8, a, Decreto 34/1996).

HABE desde su creación ha elaborado diferentes programas de euskaldunización. Así, los denominados sucesivamente, «Programación para la euskaldunización de adultos» (HABE 1981) y «Programando la euskaldunización de adultos-84» (HABE 1983). Tras ambos, por Orden del 7 de enero de 1987, se establecieron los contenidos de los ocho primeros niveles de euskaldunización y criterios básicos para su evaluación, que fueron posteriormente sustituidos por el Programa de euskaldunización de adultos, fijado por Orden de 17 de noviembre de 1989 que determinaba el nivel de destrezas y contenidos lingüísticos correspondientes a cada uno de los doce niveles del proceso de euskaldunización.

Transcurrida una década desde la implantación de este último, se ha considerado oportuna su revisión y adecuación a pautas curriculares más actuales. A tal efecto, de acuerdo con las necesidades expresadas por los euskaltegis, con el asesoramiento del Consejo Académico de HABE, y en respuesta a la propuesta de renovación curricular que recoge el Plan General de Promoción del Euskera, se ha elaborado una propuesta denominada Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos, que ha sido formulado por el Patronato Rector de HABE, en los términos previstos por el artículo 20 de la Ley 29/1983.

Dicho Currículo Básico es un documento, que partiendo de los principios de la enseñanza/aprendizaje de la lengua, proporciona información sobre los objetivos y contenidos de la enseñanza de euskera. Es una propuesta de trabajo que tiene por función servir de guía en la labor docente a los euskaltegis. Se trata de un documento abierto y flexible a desarrollar por los euskaltegis y profesores que lo han de llevar a la práctica, teniendo en cuenta las características del centro, del entorno y del alumnado al que va dirigido.

De conformidad al referido artículo 20 de la Ley 29/1983, entre otros cometidos, corresponde al Departamento de Educación y Cultura, a propuesta del Patronato Rector de HABE, la ordenación general de las enseñanzas que se imparten en los euskaltegis.

En su virtud, estando adscrito el Organismo Autónomo de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi HABE, al Departamento de Cultura,

RESUELVO:

**Artículo 1.** – Aprobar el nuevo Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a Adultos, que aparece como Anexo a la presente Orden.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulu hau izango da HABEren Erregistroan inskribatuta dauden Euskaltegien jardun didaktikoaren obligaziozko erreferentzi markoa.

**2. artikulua.**– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren ezarpenerako, euskaltegi bakoitzak bere izari-ezagarrien eta dokumentu honen arabera Kurrikulu Proiektua aurkeztu behar dio HABEren zuzendari nagusiari.

Proiektu honek jarraian datozenak jasoko ditu:

- Euskaltegiak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.

- Euskaltegiak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.

- Oinarrizko kurrikulua mailaka egokitzeko proposamena, baita maila bakoitzeko aurrakusten den ordukopurua ere.

- Oinarrizko kurrikuluak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegiaren eta ikasleen beharretara egokituz.

- Hobetsitako aukera metodologikoak.

- Ikas/irakas-materialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.

- Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeo aribideak.

Euskaltegiaren Kurrikulu Proiektua agindu hau onartu eta hiru urteren buruan gauzatu beharko da.

**3. artikulua.**– Euskaltegiak igorritako Kurrikulu Proiektua aztertu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak proiektua ebazpen bidez onartuko du.

Halaber, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren esanekin bat etorriko ez balitz, HABEK euskaltegiari jakinaraziko dio eta Kurrikulu proiektua osatzeko edo aberasteko egokitzat jotzen dituen iradokizunak egingo ditu, dagokion neurrian, proiektua hobetzeko orientabideak eskainiz.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

**Bakarra.**– Mailaketari dagokionez, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluak ezartzen dituen mailak izango dira euskaltegien jardunaren erreferente nagusia. Hori dela eta, egin beharreko egokitzapenak burutu ahal izateko euskaltegiek Agindu hau indarrean jarri eta hiru urteko epea izango dute. Bitartean, HABE eta euskaltegien arteko harremanetan, gaur egun indarrean dauden parametroak mantenduko dira.

Este Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a Adultos será el marco de referencia obligatorio en la actuación didáctica de los euskaltegis inscritos en el Registro de HABE.

**Artículo 2.**– Para el establecimiento del Currículo Básico de Euskaldunización de Adultos, cada euskaltegi conforme al citado documento y sus características propias, deberá proponer al Director General de HABE su Proyecto Curricular.

Dicho Proyecto Curricular contendrá:

- Los principios generales sobre el aprendizaje y enseñanza de la lengua que asume el euskaltegi.

- Análisis y autoevaluación acerca de la situación actual del euskaltegi y necesidades sociales del entorno en el que desarrolla su actividad.

- Propuesta de adecuación del currículo básico por niveles, así como las horas aproximadas previstas para cada uno de ellos.

- Selección y secuenciación de los diferentes objetivos y contenidos fijados en el currículo básico, atendiendo a las necesidades del alumnado y del euskaltegi.

- Planteamiento metodológico adoptado.

- Propuestas de materiales a utilizar por niveles y criterios de selección de los mismos.

- Sistemas y procesos de evaluación del alumnado, del profesorado y del propio euskaltegi.

En todo caso, el Proyecto Curricular del euskaltegi deberá elaborarse dentro del plazo de tres años a partir de la aprobación de esta Orden.

**Artículo 3.**– Una vez analizado el Proyecto Curricular remitido por el Euskaltegi, el Director General de HABE dictará Resolución acordando aceptar tal Proyecto.

Caso de que se advirtieran aspectos que, por no adecuarse al Currículo Básico de Euskaldunización de Adultos, exijan alguna modificación, HABE pondrá en conocimiento del euskaltegi tal extremo y formulará las sugerencias que considere convenientes para completar o enriquecer el proyecto curricular, orientando, en su caso, el trabajo de reelaboración que contribuya a la mejora del mismo.

#### DISPOSICION TRANSITORIA

**Única.**– Los niveles establecidos por el Currículo Básico para la enseñanza de Euskera a Adultos serán el marco de referencia en la actuación didáctica de los euskaltegis. Para realizar las adecuaciones necesarias al respecto, los euskaltegis dispondrán de un plazo de tres años a partir de la aprobación de esta Orden. Entre tanto se mantendrán los parámetros actualmente vigentes de relación entre HABE y cada uno de los euskaltegis.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu honen Xedapen Iragankorreetan agindutakoa agindu, indarrak gabe geratzen da Kultura eta Turismo Sailaren Agindua, 1989ko azaroaren 17koa, Helduak Euskalduntzeko Irakaskuntza Programa ezarri zuena, HABE Erakunde Publikoak diruz lagundutako euskaltegiek bete zezaten. Indarrak gabe geratzen da, halaber, helduen euskalduntzearen arloan Agindu honen aurka egon dadin beste ezein erabaki.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.** – HABEren zuzendari nagusiak, berridagozkion eskumenen barnean, HABEren dirulaguntza duten euskaltegietan Oinarrizko Kurrikulua ezarri eta garatzeko behar diren Akordioak bideratuko ditu.

**Bigarrena.** – Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko urtarrilaren 24a.

Kultura sailburua,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## I. ERANSKINA

## HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO KURRIKULUA

## Aurkibidea.

- Sarrera.
- Kurrikuluaren oinarriak.
- Helburuak mailaz maila.
- 1.– mailarako edukiak.
- 2.– mailarako edukiak.
- 3.– mailarako edukiak.
- Metodologia.
- Ebaluazio-irizpideak.

## SARRERA.

Besteak beste, helduen euskalduntzea suspertzea eta bideratzea da HABEren zeregina. Horretarako sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 1981ean, eta horretarako lege Erakunde Autonomo bihurtu Eusko Legebiltzarrak 1983an.

Zeregin hori betetzeko, hasiera-hasieratik garrantzi handiko tresnatzat jo zuen HABEek programa didaktikoa. Programa horixe lantzen hasi zen eratu orduko, eta 1981ean bertan argitaratu zuen lehenengoa: «Helduen euskalduntzerako programazioa» (HABE 1981). Helduen euskara-irakaskuntzaren programa zuen liburuak

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Transitoria de esta Orden, queda derogada la Orden de 17 de noviembre de 1989, del Departamento de Cultura y Turismo, por la que se establece el Programa de Enseñanzas de Euskaldunización de Adultos, de obligado cumplimiento en los euskaltegis subvencionados por el Organismo Público HABE y cualquier otra disposición en materia de euskaldunización de adultos que se oponga a esta Orden.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** – El Director General de HABE, dentro del ámbito de facultades que le corresponden, dictará los Acuerdos necesarios para la implantación y desarrollo del Currículo Básico en los euskaltegis subvencionados por HABE.

**Segunda.** – La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 2000.

La Consejera de Cultura,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## ANEXO I

## CURRÍCULO BÁSICO PARA LA ENSEÑANZA DE EUSKERA A ADULTOS

## Índice.

- Introducción.
- Principios generales.
- Objetivos de cada nivel.
- 1.– Contenidos para el primer nivel.
- 2.– Contenidos para el segundo nivel.
- 3.– Contenidos para el tercer nivel.
- Metodología.
- Criterios de evaluación.

## INTRODUCCIÓN.

La euskaldunización de adultos es uno de los cometidos primordiales de HABE. Con ese fin fue creado por el Gobierno Vasco en 1981, y con ese mismo objetivo fue constituido legalmente como Instituto Autónomo por el Parlamento Vasco en 1983.

Para fomentar y encauzar la euskaldunización de adultos, HABE consideró el programa didáctico como un instrumento de suma importancia y la elaboración del mismo como uno de sus quehaceres fundamentales. Así, en 1981, HABE publicó su primer programa: «Programación para la euskaldunización de adultos»

eduki nagusi eta ondorengo hainbat lanen oinarri izan zen.

Lehenengo programa haren ondoren eta euskararen irakaskuntzan egindako aurrerabidearen ondorioz etorri ziren gero beste hiru programa: «Helduen euskalduntzea programatzen-84» (HABE 1983), «Euskalduntzearen lehen zortzi urratsetako edukia eta ebaluaketarako oinarritzko irizpideak» (1987ko urtarrilaren 7ko Agindua; ZUTABE 1987) eta «Euskalduntzeko programa» (1989ko azaroaren 17ko Agindua; HABE 1989). Eta aurrerabide beraren harian dator, hain zuzen, honako «Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua» ere.

Bide luzea egin du helduen euskalduntzeak. Bide horren mugari dira lehen lau programak, bakoitza bere bereizgarriekin, izenez eta edukiez desberdin, egindako aurrerabidearen lekuko eta, aldi berean, eginkizun zegoenaren gidari. Eta lau programa horien ildotik dator kurrikulu berria ere, mugari berria ezartzera, egungo beharren arabera. Mugak muga eta zalantzak zalan-tza, aldi bat burutu zuten lau programa horiek helduen euskalduntzean: mailakatua geratu zen EGA bitarteko ikas-prozesua, eta langaiez eta ebaluaziorako irizpidez hornitua.

Baina ez zegoen dena egina. Batetik, programaren hizkuntz edukiak eta urrats bakoitzeko gaitasun-mailak adieraztera mugatzen da laugarren programa, nahiz eta testuinguru zabalagoa eskaini aurkezpenean; gainera, lehen zortzi urratsetan gainditu gabeko hainbat arazoren konponbide-itxura dute, neurri batean, azken lau urratsek. Horrek, bestetik, programaren oinarrietara begira jartzen gaitu, eta horiek irakaskuntzan nola hezurmamitzen diren aztertzea bultzatzen. Baina bada arazo larriagorik ere, nahiz eta lotura hain zuzenik ez izan programarekin berarekin: hor daude ikas-prozesua utzi eta amaitzen ez duten ikasleak; eta hor daude, era berean, euskara bera ikasi bai baina erabiltzen ez dakitenak eta erabiltzen ikasi bai baina oker erabiltzen dutenak ere. Baina bada besterik: askok ez dute nahikotzat jotzen EGARI dagokion gaitasun-maila lortzea, eta euskal gizartea ere gaitasun handiagoko euskaldunen beharrean da.

Aldi berean, premia berriak sortu dira azken urteotan helduen euskalduntzearen eremuan. Eta ez dira txiki-enak, noski, administrazioa euskalduntzeko plangintzak eragindakoa, irakaslearen euskalduntzea, enpresetako euskalduntze-prozesuak.

Horiek horrela izaki, beharrezkoa ikusi du HABEK gaurdainokoa aztertu eta euskalduntzearen kurrikulu berri bat egitea: esku artean dugun haxe. Kurrikulu berri honek, jakina, arestian aipatutako hutsuneak, arazoak eta premiak izan ditu kontuan, eta horiei erantzuteko bideak moldatzea xede. Horretarako, orain artekoaz baliatu da HABE, bai euskalduntzearen eremuan

(HABE 1981), cuyo contenido principal fue el programa para la enseñanza del euskera a adultos, que a la postre sería el cimiento de otros trabajos.

Posteriormente, y debido al desarrollo que se produjo en la enseñanza del euskera, nacieron otros tres programas: «Programando la euskaldunización de adultos-84» (HABE 1983), «Contenido de los ocho primeros niveles de euskaldunización y criterios básicos para su evaluación» (Zutabe 1987) y «Programa para la euskaldunización» (HABE 1989).

Esos cuatro primeros programas, diferentes en su denominación y contenido sirvieron para jalonar ese camino; fueron testigos de la evolución llevada a cabo y, al mismo tiempo, guías de la futura labor. Cumplieron, además, un cometido de gran relevancia: la temporalización de la euskaldunización de adultos, la gradación del proceso de aprendizaje hasta el nivel EGA, la elaboración de materiales didácticos y la definición de los criterios de evaluación.

Pero aún quedaba mucho por recorrer; el cuarto programa, por ejemplo, se limitaba a señalar los contenidos lingüísticos y los niveles de competencia, aunque en su presentación se ofrezca un contexto más amplio. Ello hace que dirijamos nuestra mirada hacia los principios básicos del programa, y que analicemos cómo se plasman en la enseñanza. A todo eso hay que añadir otros problemas de suma importancia, que aunque no atañen directamente al programa, están estrechamente relacionados con él: ¿Qué hacer con los alumnos que abandonan el proceso de aprendizaje? ; ¿Qué hacer con los alumnos que aprenden el euskera pero no lo utilizan, o lo utilizan incorrectamente? Pero aún hay más: a muchos no les parece suficiente la consecución del nivel correspondiente a EGA, y la sociedad vasca requiere, por otro lado, un nivel de competencia superior de acuerdo con sus actuales necesidades.

Asimismo, en estos últimos años han surgido nuevas necesidades en el ámbito de la euskaldunización de adultos. Y no son menos importantes, por supuesto, los retos motivados por la planificación de la euskaldunización de la administración, la euskaldunización del profesorado, los procesos de euskaldunización en los que están inmersas las empresas.

En consecuencia, HABE ha sentido la necesidad de analizar lo realizado hasta hoy en día y poner en marcha el presente currículo de euskaldunización. En su elaboración, como cabe esperar, se han tenido en cuenta carencias, dificultades y necesidades anteriormente mencionadas, tratando de poner en marcha los mecanismos necesarios para dar respuesta a todas ellas. Con

egindakoaz, bai beste hizkuntzen irakaskuntzan egindakoaz; eta aintzakotzat hartu ditu, gainera, kurrikulugintzaren inguruko hainbat ekarpen teoriko berri ere.

Horrela sortutako kurrikulu berrian, agerikoak dira orain arteko bidearen aztarnak eta nabarmenak berrikuntzak. Baina oraingo hau ez da, hala ere, aurrekoen jarraipen soila, zenbait berrikuntzaz hornitua. Gehiago ere izan nahi du: helduen euskalduntzean jauzi garrantzizkoa ematen lagunduko digun baliabide anitz eta eraginkorra.

Izan ere, jauzi garrantzizko baten beharrean da helduen euskalduntzea. Alde asko dituen jauzia da eta alor askotan eragingo duena: zenbait programaren bermoldatze eta uztartetan, euskaltegien eraketa eta autonomian, irakaslearen prestaketan eta autonomian, euskaltegi eta irakasle bakoitzaren programazioetan, ikaslearen partaidetza eta autonomian, ikas-prozesuen mailaketan eta luze-laburrean, metodologian, ebaluaziogintzan... Oro har, helduen euskara-irakaskuntza indarberritzea eta areagotzea du HABEk egitasmo, eta helduen eta gizartearen euskalduntzeari eragitea xede.

Eta egitasmo hori oinarri eta ardatz, honako baliabide anitz eta eraginkor hau eratu du HABEk: helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua. Eta horixe da lehenengo eta behin kurrikulua: egitasmo baten zerbitzurako sortutako baliabidea. Irakaskuntzan txertatzen da kurrikulua, eta sistema osoaren atala da. Oinarritzko kurrikulu izaki, gainera, zehaztopen-maila orokorraz dihardu eta zehaztopen-maila xeheagoen beharrean da. Eta kurrikulu izaki, azkenik, programa bat baino gehiago da.

Lau bereizgarri nagusi ditu, beraz, eskuetan dugun oinarritzko kurrikuluak. Azal ditzagun banan-banan zehatzago.

1.- Egitasmo zabal baten baitan kokatzen da kurrikulua, eta egitasmo zabal horren zerbitzuan dago. Kurrikulua ez da ezer, egitasmo horren baitan ez bada. Egitasmoaren helburuak gauzatzeko baliabide den neurrian, beteko du kurrikuluak bere zeregina.

Egitasmoa zabala da: helduen euskara-irakaskuntza berritzea du helburu; are gehiago, etengabeko berrikuntza eragilea martxan jartzea. Egitasmoa ez da amaitzen dokumentu hau argitaratzean. Etengabe berritzen eta aldatzen ari den sistemari erantzun nahi baitio.

2.- Sistema osoa da irakaskuntza, eta sistema oso horren atala da kurrikulua. Sistema osoan du eragina kurrikuluak, eta sistema osoak du eragina kurrikuluan. Sistema osoari eragiteko sortzen da kurrikulua; eta malgua izaki, zabalik dago sistema horren eragina bereganatzeko. Beraz, prozesu baten atala ere bada kurrikulua: etengabe aldatzen eta berritzen ari den prozesu baten aldagai eragile. Sistema horren bihotzean dago irakaslea. Irakaslearen etengabeko berrikuntzak bermatuko du, azken batean, irakas-sistema osoaren berrikun-

tal fin, HABE se ha valido de lo realizado hasta ahora, tanto en el propio ámbito de la euskaldunización como en la enseñanza de otros idiomas; y ha tenido presente en su elaboración aportaciones teóricas muy recientes.

En el nuevo currículo son manifiestas las huellas del reciente pasado y muy notorias las innovaciones. No se trata, sin embargo, de dar continuidad a lo hecho anteriormente con unas pocas aportaciones innovadoras; sino de crear un instrumento eficaz y plural que suponga un salto cualitativo en la euskaldunización de adultos.

Un salto que entraña muchos aspectos y que, sin duda, ejercerá su influencia en muchos campos: tales como la remodelación e imbricación de los programas, la organización y autonomía de los euskaltegis, la autonomía y preparación de los profesores, la programación de cada euskaltegi y de cada profesor, la autonomía y participación de los alumnos, la gradación y temporalización del proceso de aprendizaje, la metodología, la tarea de evaluación... En suma, HABE asume el proyecto de reavivar y vigorizar la enseñanza de euskera a adultos y de promover la euskaldunización de adultos y de la sociedad.

Y tomando como eje y base este proyecto, HABE ha creado un instrumento plural y eficaz «El currículo básico para la euskaldunización de adultos». Y eso es en primer lugar el currículo: un instrumento creado al servicio de un proyecto. El currículo se inserta en la enseñanza y es una parte de un sistema integrado. Como su propio nombre indica, se trata de un currículo básico de concreción general, necesitado de una concreción más detallada. Y como tal currículo, es más que un mero programa.

Analícemos más detalladamente algunas características del currículo.

1.- El currículo se enmarca dentro de un proyecto amplio y está a su servicio. Pierde su valor si no está integrado en este proyecto. Desempeña su función en la medida en que es un instrumento para cumplir los objetivos de este proyecto.

No finaliza con su publicación, sino que es un proyecto amplio, cuyo objetivo es la renovación de la enseñanza del euskera a adultos; pretende ser así un instrumento de innovación que dé respuesta a un sistema cambiante y en continua evolución.

2.- El currículo es parte del sistema integral de la enseñanza. Se crea para incidir en él; pero, a su vez, al ser flexible, está abierto a recibir el influjo de tal sistema. Por consiguiente, el currículo es parte de un proceso en constante cambio y renovación. En el corazón de ese sistema destaca la figura del profesor, ya que, en definitiva, es él el que garantizará la renovación de todo el sistema de enseñanza. Y en el eje de ese sistema se sitúa el alumno; y son, sin duda, sus necesidades el punto de partida en la enseñanza, pues es él el que

tza. Eta ikaslea du sistemak ardatz. Ikaslearen premiek agintzen dute irakaskuntzan. Ikasleak ikasten du, azken batean, hizkuntza. Eta hori beti horrela bada, are gehiago da, ikaslea heldua denean. Beraz, ez dago euskararen irakaskuntza berritzerik, ikaslearen heldutasuna eta autonomia landu gabe, ikaslea bere ikastearen lehen egile eta erantzule ez bada.

3.- Oinarrizkoa da honako kurrikulu hau; oinarrizkoa, orokorra eta zabala: euskaltegi bakoitzari dagokio moldatu eta zehaztea, eta irakasle eta ikasle bakoitzari hezurmamitzea.

Ikuspegi horren arabera, prozesu baten lehen urratsa da kurrikulu hau, proiektu baten lehen agiria. Kurrikulua osatu eta zehaztu ahalean joango da prozesua burutuz eta proiektua gauzatu. Horrek, jakina, proiektua moldatzea eta ñabarduraz hornitzea dakar berekin; are gehiago, hainbat erabaki hartzea, zenbait aukera hobetsiz eta beste batzuk bigarren mailan utziz. Izan ere, ingurune soziokultural bakoitzak ditu bere bereizgarriak eta beharrak, eta bereizgarritasun eta behar horietara moldatuko da euskaltegi bakoitza, eta horrela eginez gauzatu du proiektua. Hizkuntza ez baitago irakasterik tokian tokiko aldagaiak kontuan izan gabe.

Bestela esanda, euskaltegi bakoitzak bere autonomia garatu eta bere eskaintza zehazten duen neurrian joango da hezurmamituz, pixkana-pixkana, kurrikulu hau argitaratuz hasitako proiektu eta prozesua. Euskaltegi bakoitzaren egitasmoa eta programazioa izango dira, besteak beste, hezurmamitze horren emaitza.

4.- Prozesuaz gain, produktu ere bada kurrikulua: dokumentu bat. Programa baino zabalagoa den dokumentua, hain zuzen. Programaz gain, beraren oinarriak ere azaltzen dituena. Hiru dira oinarri horiek: ZER ikasten den hizkuntza ikastea, NOLA ikasten duen helduak bigarren hizkuntza eta zer ingurune soziokulturalan (NON, NORAKO eta ZERTARAKO) ikasi duen.

#### KURRIKULUAREN OINARRIAK.

##### 1.- Hizkuntzaren ikuspegia.

Kurrikuluak hizkuntzaren ikuspegi diskurtsibo-pragmatikoa aldarrikatzen du: Hizkuntz sistemaren unitate komunikatiboa ez da ez hitza, ezta esaldia ere, diskurtsoa baizik, testuetan gauzatzen dena. Testuek, berriz, bere osotasuna lortuko dute, bere arau propioez gainera, azpisistema fonologiko, morfosintaktiko eta semantikoen arauak ere betetzen badituzte, beti ere komunikazioa gertatzen den xedeari eta egoerari, kontestuari alegia, egokituz. Komunikazioa eraginkorra izan dadin, bada, beharrezkoa da hizkuntz erabilerarako arauak ere ezagutzea; zenbait forma linguistikoko halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazio-xedea kontuan izanik erabiltzen jakitea. Bestela esanda, benetako komunikazioa egoerari eta xedeari egokitu behar zaie.

aprende el idioma. Por tanto, no es posible renovar la enseñanza del euskera, en tanto no se cultive la autonomía y madurez del alumno, haciéndole responsable de su proceso de aprendizaje.

3.- Se trata de un currículo básico, general y amplio, correspondiendo a cada euskaltegi adecuarlo y delimitarlo, y a cada profesor y alumno configurarlo.

Así, este currículo es el primer paso de un proceso y el primer documento de un proyecto. A medida que se elabore y se detalle, el proceso ira completándose y el proyecto realizándose. Por supuesto, todo ello traerá consigo adecuar el proyecto y revestirlo de diferentes matices; más aún, habrá que tomar ciertas decisiones, primando ciertas opciones sobre otras. En efecto, cada contexto sociocultural tiene sus propias necesidades y rasgos característicos, y cada euskaltegi tendrá que amoldarse a tales necesidades y especificidades, desarrollándose así el proyecto curricular. De ningún modo se puede enseñar la lengua sin tener presentes sus variables socioculturales.

Dicho de otro modo, a medida que cada euskaltegi vaya desarrollando su autonomía y ajustando su oferta irá configurándose, paso a paso, este proceso y proyecto que empieza con la publicación de este currículo. El proyecto curricular y la programación de cada euskaltegi serán entre otros el resultado de esa plasmación.

4.- Además de tratarse de un proceso, el currículo también es un producto. Se trata de un documento más extenso que un programa, ya que contiene los principios que lo justifican, tres fundamentalmente: ¿QUÉ se aprende cuando se estudia un idioma? ¿CÓMO aprende el alumno adulto una segunda lengua? ¿En qué entorno sociocultural aprende (DÓNDE, CON QUÉ FIN)?.

#### PRINCIPIOS DEL CURRÍCULO.

##### 1.- Concepción de la lengua.

El currículo se fundamenta en el planteamiento discursivo-pragmático de la lengua: la unidad comunicativa del sistema lingüístico no es la palabra, ni siquiera la frase; sino el discurso, que es observable en el texto. Los textos lograrán su plenitud, si además de las normas inherentes a su naturaleza, observan las reglas del sistema en sus tres niveles fonológico, morfosintáctico y semántico, adecuándose a la situación e intención comunicativa, es decir a su contexto. Para que la comunicación resulte eficaz es preciso, en todo caso, conocer las reglas de uso de la lengua; es decir, saber usar las diversas formas lingüísticas adecuándolas a determinadas situaciones, con determinadas personas y con fines o intenciones comunicativas diversas. En resumidas cuentas, la verdadera comunicación ha de adecuarse a su entorno e intención comunicativa.

Hizkuntzaren kontzepzioan azken urteotan ikuspegi eta norabide aldaketa eman da eta horietako batzuk dira kurrikuluaren oinarri: ezagutzatik erabilerara, sistema linguistikotik sintetikotik analitikora, esalditik tesitura, produktutik prozesura, gaitasun linguistikotik komunikatibora, zuzentasunetik egokitasunera.

## 2.- Alderdi psikopedagogikoa.

Ikaskuntzari dagokionez, Kurrikuluaren oinarrian ezagutza instrumentala eta formala uztartzearen aldeko apustua dago, planteamendu konstruktibistaren ikuspegiari jarraiki.

Hizkuntzaren ezagutza instrumentala estu lotu da, ezinbestez, ikaslearen eta inguruko solaskideen arteko harremanekin. Gizarte-egoera batean hezurramitzen dira harreman horiek; eta gizarte-harreman horien baitan jarduten du ikasleak bigarren hizkuntzan, esanahiak negoziatuz komunikazio-lanak burutzen.

Hizkuntzaren ezagutza formala lantzeak, berriz, berekin dakar prozesu kognitiboak bultzatzea eta bigarren hizkuntzaren alderdi formalen ezagutza-eskemak eraikitzen laguntzea; era berean, eskema horien etengabeko berreraikitzearen aurrean jartzen gaitu; berreraikitze horiei esker joango da ikaslea, hain zuzen, hantemenka eta loturarik gabe ikasitakoa eratuz eta uztartuz.

Ikuspegi horren arabera, hiru baldintza bete behar dira, hizkuntzaren ezagutza formal hori eraiki dadin. Batetik, lotura logikoa izan behar dute bigarren hizkuntzaren edukiek. Bestetik lotura psikologikoa izan behar dute: ikaslearen aurreko eskema-sareetan txertatzeko modukoak izango dira eduki berriak eta lehendikako ezagutzekin uztartzeko modukoak. Azkenik, aldeko jarrera izan behar du ikasleak, ezagutza horiek eraikitze ahaleginean. Eta berreraikitze-prozesu horretan ikasleak ematen dituen urratsen adierazle da tarteko hizkuntza. Honek ikaslearen lehen hizkuntzaren eta ikasten ari denaren arteko sistema baten itxura du. Sistema hori aldatzen joaten da ika-prozesuak aurrera egin ahala eta arau berriak, hitz berriak eta abar bereganatzen dituen neurrian.

Tarteko hizkuntzaren ildotik ere ikusi eta aztertu behar dira ikasleak egiten dituzten erroreak, xede-hizkuntzaren sistema barneratzen ari den adierazpen gisa, eta ez ikaskuntza ezaren adierazle.

## 3.- Alderdi soziokulturala.

Hizkuntzaren alderdi soziokulturalaz hitz egitean, bi errealitate ditugu, soziokultura hitzak berak aditzera ematen digunez: 1) hizkuntzaren alderdi soziala eta 2) hizkuntzaren dimentsio kulturala.

En estos últimos años se ha producido un cambio de dirección y de planteamiento en la concepción de la lengua, que constituye el fundamento lingüístico del currículo. Ello supone un cambio de tendencia del conocimiento al uso, del sistema lingüístico sintético al analítico, de la frase al texto, del producto al proceso, de la competencia lingüística a la comunicativa, de la corrección a la adecuación.

## 2.- Aspecto psicopedagógico.

En lo que respecta a la enseñanza, se ha optado por un currículo cuyos principios aúnen el conocimiento formal y el instrumental, de acuerdo con el planteamiento constructivista.

El conocimiento instrumental de una lengua está estrechamente y necesariamente vinculado a la relación que se entabla entre los alumnos y los interlocutores próximos. Estas relaciones se conforman en una situación social determinada, y el alumno de una segunda lengua es un partícipe activo en esta relación social, llevando a cabo el acto comunicativo por medio de la negociación del significado.

El desarrollo del conocimiento formal de la lengua conlleva impulsar los procesos cognitivos y ayudar a construir los esquemas mentales inherentes a los aspectos formales de una segunda lengua; asimismo, nos sitúa ante la continua reconstrucción de tales esquemas; en efecto, gracias a este proceso de reconstrucción es como el alumno va entrelazando y organizando lo aprendido de un modo inconexo y desperdigado.

Desde ese punto de vista, han de cumplirse tres condiciones para que se construya el conocimiento formal de una lengua. Por un lado, los contenidos de una lengua han de tener un nexo lógico. Por otro, precisan de una conexión psicológica; es decir, los nuevos contenidos deberán posibilitar su inserción en el esquema mental previo del alumno y su vinculación con los conocimientos anteriores. Finalmente, el alumno deberá adoptar una postura activa y no escatimar esfuerzos en pro de la reconstrucción de ese conocimiento formal. Y en esa andadura, la interlengua del alumno es un buen indicador del camino recorrido. Así, ésta toma el aspecto de un sistema que se sitúa entre la primera lengua o lengua madre del alumno y su segunda lengua o lengua objeto de aprendizaje. Ese sistema no es estable y va variando a lo largo del proceso de aprendizaje, mientras adquiere nuevas normas, palabras, etc.

Es desde el punto de vista de la interlengua como hay que analizar los errores cometidos por el alumno, a modo de indicador de que está interiorizando el sistema de la lengua objeto, y no como señal de posibles carencias en el aprendizaje.

## 3.- Aspecto sociocultural.

Al referirnos al aspecto sociocultural de la lengua, nos encontramos ante dos realidades, como bien nos da a entender el propio concepto de sociocultura: 1) aspecto social de la lengua y 2) dimensión cultural de la lengua.



Alderdi sozialari dagokionez, kontuan izan behar dira euskararen normalizazio soziala eta linguistikoa, baita ikasleen euskara ikasteko motibazioa ere, euskararen irakaskuntza neurri batean baldintzatu egiten baitute, eta kurrikulu irekia planteatzera behartzen. Kurrikulu irekia, batetik, tokian tokiko berezitasunen arabera, batasunaren baitan programazio berezietara heltzeko bidea emango duena. Kurrikulu irekia, bestalde, metodologia malgua bideratuko duena eta, azken batean, ikasleen beharretara ahalik eta gehien hurbildu eta egoikituko dena.

Alderdi soziokulturalaren beste osagaia dugu kulturarena. Ezinbestekoa du euskara-kurrikuluak euskal kultura ere aintzat hartzea. Berezkoa baitu euskarak euskal kultura eta ikuspegia: errealitatea hautemateko era. Baina beti ere kontuan izan beharko da ikasgaia ez dela kultura -gramatika ez den bezala-, baizik eta euskara, alderdi eta izari kulturala barne. Eduki kulturalak ez dira ikas-materialetatik aldenitu behar, ez zaie aparteko tratamendu isolatua eskaini behar; integratua baizik. Jarduera didaktikoek elementu kulturalak «bus-tita» egon behar dute.

#### HELBURUAK MAILAZ MAILA.

Lau mailatan banatzen da euskalduntze-prozesua. Hona hemen maila bakoitzerako helburuak orokorrean, trebetasunez trebetasun.

##### 1. MAILA.

Lehenengo maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa eta narrazio sinpleak, instrukzioak, pertsona eta objektuen deskribapen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Halaber, eguneroko harreman hurbilen inguruan, solasaldietan parte hartzeko gai izango da. Dena den, testuaren mezua nagusia eta orokorra jaso/adieraziko du, eta zenbaitetan, helburuaren arabera eta testuaren egiturak bideratzen duenean, informazio xehea ere jasoko du.

Entzumenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa edo narrazioak ulertzeko gai izango da, baita instrukzio zuzenak jarraitu eta elkarrizketan parte hartzeko ere. Informazio orokorra, alditan xehea, eta zenbait kontestutan (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erreduntzia, ikusizko lagungarriak...) ñabardurak jasoko ditu. Hala ere, konpentsazio-estrategietara jotzeko joera izango du.

Mintzamenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan, ikasleen

En lo que respecta al aspecto social, hemos de tener en mente la normalización social y lingüística del euskera, así como la motivación del alumno hacia el aprendizaje del euskera; son en sí elementos que condicionan en cierta medida la enseñanza del euskera, y por ello nos empujan a plantear un currículo abierto. Un currículo cuya flexibilidad nos permita, por un lado, lograr, dentro de la unificación, una programación específica de acuerdo a los rasgos característicos del entorno. Y por otro, un currículo abierto que posibilite una metodología flexible y cuyo fin sea adecuarse y acercarse en lo máximo posible a las necesidades de los alumnos.

El otro componente del aspecto sociocultural es la cultura. Es imprescindible que el currículo del euskera tome en consideración la cultura vasca. El euskera por su propia naturaleza hace suya la cultura e idiosincrasia del pueblo vasco: es su modo de percibir la realidad. Sin embargo, siempre se ha de tener presente que el objeto de estudio no es la cultura —como no lo es la gramática—, sino el euskera, en el que están incluidos el aspecto y la dimensión cultural. Los contenidos culturales no deben ser ajenos ni alejarse de los materiales didácticos, sino que deben estar integrados. La actividad didáctica debiera estar impregnada de elementos culturales.

#### LOS OBJETIVOS DE CADA NIVEL.

El proceso de euskaldunización se divide en cuatro niveles. He aquí los objetivos generales de cada nivel, de acuerdo a las diferentes destrezas.

##### PRIMER NIVEL.

Al finalizar el primer nivel, el alumno estará capacitado para expresar oralmente y por escrito breves instrucciones y descripciones de objetos y personas, así como narraciones y relatos simples sobre temas generales y conocidos dentro de contextos habituales y familiares. Asimismo, estará capacitado para participar en las conversaciones que se den en un entorno familiar y cercano. De cualquier modo, será capaz de captar y dar a entender el mensaje global y principal del texto, e incluso, en algunos casos, según los objetivos y la estructuración del texto, de captar los detalles de la información suministrada.

Comprensión oral: Comprenderá dentro de un contexto habitual y familiar narraciones y relatos acerca de temas comunes y generales; asimismo, podrá seguir instrucciones directas y tomar parte en diferentes conversaciones y diálogos. Captará la información global, así como determinados detalles en diferentes contextos (sin ruidos, ritmo normal, clara pronunciación, diálogos redundantes, soportes visuales.) Sin embargo, a menudo tenderá a utilizar estrategias de compensación.

Expresión oral: Entablará conversaciones tanto con sus compañeros como con los hablantes nativos. Igual-

arteko nahiz jatorrizko hitzunikiko elkarrizketetan parte hartzeko gauza izango da. Baita instruktzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta narrazio edo kontaketa laburrak antolatzeko ere.

Irakurmenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan idatzizko kronika eta artikulu laburrak, deskribapenak eta argibideak ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera eta irakurgaiaren egiturak bideratzen duen neurrian (informazioaren antolaketa, kateamendua, zenbaterkoa, elementu ikonikoak, hizkuntzaren aberastasuna...) informazio orokorra edo xehea aurkitzeko gai izango da.

Idazmenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko, oharrak idazteko gai izango da.

## 2. MAILA.

Bigarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da ohiko gai eta egoera ezagunei buruzko solasaldi eta jardunak, narrazioak, deskribapenak, instruktzioak eta azalpen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Dena den, zailtasunak izango ditu ñabardurak jasotzeko eta adierazterakoan.

Entzumenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gaiak buruzko solasaldi eta jardunetan parte hartzeko gai izango da, baita instruktzioak eta narrazioak jarraitu eta gai ezagun baten inguruko azalpenak ulertzeko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, baina zenbait kontestutan eta jatorrizko hitzunikaren hizketa oso kolokialean ñabardurak jasotzeko zailtasunak izango ditu. Hala ere, zailtasun hauek entzumen-estrategiaz baliatuz gaindituko ditu, komunikazioa apurtu gabe.

Mintzamenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gaien inguruan ikaslearen arteko nahiz jatorrizko hitzunikiko elkarrizketetan parte hartzeko gauza izango da. Baita instruktzioak emateko, narrazioak edo kontaketa egiteko eta gai baten inguruan azalpenak egin eta iritziak emateko ere.

Irakurmenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gaien inguruko idatzizko narrazio, kronika, erreportaje eta artikuluak, deskribapenak, ipuinak eta argibideak ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera informazio orokorra eta xehea aurkituko du, ia beti. Dena den, irakurgaiaren egituraketak (informazioaren antolaketak, kateamenduak, zenbaterkoak...) zaildu dezake ulermena.

Idazmenean ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gaien inguruan idatziz esperientziak deskribatzeko, ipuinak kontatzeko, oharrak eta gutunak egiteko gai izango da.

mente, podrá formular instrucciones, describir brevemente objetos y personas y narrar relatos breves.

Ebaluazioa jardun bateratzaile bat da, eguneroko jardunean sortzen den informazioa bilduz eta landuz, aldez aurretik ezarri diren helburuak betetzen diren ala ez egiaztatu eta hobeto bete daitezzen egin beharreko aldaketak erabakitzen lagunduko duena. Beraz, ebaluazioa ez da ikas-irakas prozesuaren amaieran edo une jakinetan kokatzen den urratsa.

Irakasleak ikaslearen hizkuntz emaitza ez ezik, ikasbidean egindako urratsak ere aztertu, baloratu eta, behar bada, aldaketak eragingo dituzten erabakiak hartuko ditu. Horregatik, ebaluazio eraginkor bat egin nahi bada, jarrerak, ikas-estrategiak, ikasgelako giroa, eskolorduen zenbatekoa, irakaslearen irakas-estiloa eta abar luzeari erreparatu beharko zaio. Izan ere, ikas-irakas prozesuan esku hartzen duen guztia baita ebaluagai, dena hobe daitekeen den neurrian.

Bi funtzio bereizten dira ebaluazioan: formatiboa eta sumatiboa.

Funtzio formatiboa prozesuari dagokio. Funtzio sumatiboa, berriz, produktuari. Ez dute elkar baztertzen. Aitzitik, elkarren osagarri dira eta batak besteari etengabe eragiten dio. Produktuaren ebaluazioa zenbakien eremukoa izan ohi da: ebaluazio-froge emaitzak, estatistikak... Prozesuaren azterketetatik eratorritako datuak, ordea, hitzlauz jaso ohi dira, hala nola, jarraipen-koadernoan idatzitako iruzkinak, behaketa-txostenak...

Ebaluazio sumatiboa egiteko froga komunikatiboak diseinatu behar dira. Froga hauek elkarreraginean oinarrituta beharko lukete egon, bat-batekotasuna eta benekotasuna azaldu, eginkizun esanguratsua eskatu, premia komunikatiboa sustatu, motibazioari eragin, tesuingurua aintzat hartu eta teknika ezagunaz baliatu.

Ebaluazio formatiboa ahalbideratzeko tresnak ere ugari dira. Aurrekoekin konparatuta oso bestelakoak: elkarriketak, galdeketak, behaketak, egunkaria, karpeta, jarraipen-koadernoak, audio-grabazioak, bideo-grabazioak...

Azpinarra dezagun, bestalde, ikasleari berari ere bere jarduna ebaluatzeko aukerak eskaini behar zaizkio. Ikaslea bere ikas-prozesuaren jabe eta erantzule bi-

los fenómenos lingüísticos que surgen en los diferentes corpus textuales. Sin dejar de lado la información y las orientaciones que el profesor puede procurar al alumno. Las dos fuentes son compatibles.

No hay duda que la enseñanza de un idioma es exitosa cuando se logra un equilibrio entre el contenido y la forma. En esto incide muy especialmente el planteamiento comunicativo de la enseñanza de idiomas.

#### LA EVALUACIÓN.

La evaluación es un proceso en el que se integran todos los aspectos que influyen en el desarrollo de la enseñanza/aprendizaje. La evaluación es tan cocircunstancial a este hecho que debe modificar cualquiera de los pasos que la componen. Por ello la evaluación es la consecuencia de un proceso que los conduce o reconduce analizando si se han cumplido o no los objetivos definidos, contrastando los datos y tomando las decisiones pertinentes. La evaluación no se entiende solamente como conclusión del proceso de enseñanza/aprendizaje sino algo a realizarse en todo su trayecto.

El profesor no debe evaluar solo el producto lingüístico final del alumno sino que debe analizar y valorar todo el proceso para poder tomar posteriormente decisiones ajustadas y adecuadas. Cualquier actuación, actitud y actividad que se produzca en el aula, por ejemplo, las estrategias de aprendizaje, el número de horas, el estilo de enseñanza del profesor... se deberán tomar en cuenta en beneficio de una evaluación eficaz.

En la actividad evaluativa se distinguen dos funciones: función formativa y función sumativa.

La función formativa está orientada al proceso. La función sumativa, en cambio, al conocimiento de resultados. Ambas son necesarias, ya que son mutuamente complementarias. Generalmente la evaluación referida al producto se interpreta cuantitativamente: resultados de pruebas, estadísticas... Los datos derivados del análisis del proceso se registran en términos narrativos: comentarios, informes...

Por lo que corresponde a la evaluación sumativa se deben de diseñar pruebas de carácter comunicativo. Características de estas pruebas serán que están basadas en la interacción, que son imprevisibles y auténticas, tendrán una intención comunicativa, serán motivadoras, estarán encuadradas en un contexto y desarrollarán una actividad mediante una técnica conocida.

Los instrumentos característicos de la evaluación formativa son: entrevistas, cuestionarios, pautas de observación, diarios de clase, carpetas, grabaciones en audio y bideo...

El alumno no es ajeno a la evaluación. Por ello, habrá que hacer un esfuerzo para presentarle instrumentos de autoevaluación con el fin de que él mismo co-



hurtuko badugu, bide hori aztertu eta hobetzeko tresnak eman behar dizkiogu.

Ebaluazioak, eraginkorra izango bada, etenik gabea, sistematikoa eta ongi planifikatutakoa behar du izan: nork, zer, nola eta zertarakoak ongi definitzeak izango du lehentasuna, datu-bilketa antzua izan ez dadin. Baina baita noiz egin behar den erabakitzea ere. Ebaluazioa prozesu bat da, hala ere, baditu unean uneko ezauzgarriak. Horien arabera hiru ebalualdi bereiztea komeni da: 1.- hasierako ebaluazioa; 2.- bitartekoa, jarraia; 3.- amaierako ebaluazioa.

Ondoren zehazten dira ebaluazio-irizpideak maila maila eta trebetasunez trebetasun, jomuga ezarririk helburuetan jarririk.

#### 1. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK. ENTZUMENA.

Ahoz emandako instrukzio arruntak aurrenekoan ulertu eta jarraitzeko gai izango da. Ez du errepikapenik eskatu beharrik izango. Entzun aurretik nahikoa izango du gaiaren aurkezpen orokorra. Bere kideekin solasean aritzeko behar adinako ulermen-maila du eta solasaren hariari jarraituko dio. Bere inguruan bizi diren jatorrizko hiztunekin aritzean, ordea, hauek moldatu egingo dute erritmoa, lasaiago eta argiago ahozkatu agian, edo zerbait errepikatu. Errazago egingo zaio gai bakar bati lotzen zaion solasari jarraitzea. Gaia aldatzerakoan zailtasunak izango ditu jarraitzeko. Besteen solasak (ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura egokikoak) entzuterakoan, hari nagusiari jarraituko dio. Elkarrizketa hasteko esapide ohizkoenak bereiziko ditu. Hitza hartzeko edo uzteko erabiltzen diren lokailuak ezagutuko ditu. Gaia noiz aldatzen den antzemango dio. Intonazioaren laguntzaz zenbait elementu afektiboren berri jasoko du (serio, txantxetan, haserre... ari diren), baita agian gaiarekiko lehen hurbilpen bat egin ere. Erregistro nagusiak bereiziko ditu (kolokiala/formala, konfidantzakoa/ezezagunaren artekoa...). Entzundakoaren arabera kontestua iniferituko du.

#### MINTZAMENA.

##### Zuzentasuna.

Maila morfosintaktikoan oinarriko egiturak ezagunak dituen arren, noizbehinka akatsen bat edo beste egingen du. Dena den hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Aditz-sistemak, ergatiboa, erlatiboa, nominalizazioa eta konpletiboa ondo erabiltzen ditu, nahiz eta hitz egin aurretik pentsatu behar izan eta zenbaitetan oker

nozka, valore y tome decisiones sobre cada uno de los pasos que intervienen en su proceso de aprendizaje.

Una evaluación operativa será siempre continua, sistemática y ajustada a un plan diseñado. En cualquier actividad de evaluación tendrá prioridad absoluta definir quién, qué, cómo y para qué vamos a evaluar, pero también habrá que contemplar las diferentes fases de una intervención evaluadora que permita conocer cuál es la situación de partida (evaluación inicial), una planificación de actuación flexible (evaluación continua) y una comprobación de resultados determinados (evaluación final).

A continuación presentamos los criterios de evaluación ordenados por niveles y habilidades de comprensión y expresión.

#### CRITERIOS PARA EVALUAR EL PRIMER NIVEL. COMPRESIÓN ORAL.

El alumno deberá seguir y entender las instrucciones dadas oralmente por el profesor. No tendrá necesidad de que le sean repetidas. Será suficiente para el alumno una presentación global del tema, antes de escuchar un texto. Y tendrá el nivel de comprensión necesario para conversar con sus compañeros de clase y no perder el hilo de la conversación. Cuando converse con hablantes nativos de su entorno, éstos deberán adecuar el ritmo de la conversación, y quizá deban pronunciar más claramente y de un modo más pausado, o también repetir algo de lo dicho en la conversación. Será más fácil para el alumno seguir una conversación en torno a un único tema; es decir, tendrá mayores dificultades para seguir la conversación cuando se cambie de tema. No deberá tener problemas para entender conversaciones sobre temas conocidos y que tengan un ritmo pausado. Distinguirá las expresiones que habitualmente se utilizan al comienzo de la conversación. También conocerá los recursos necesarios para tomar o ceder la palabra en una conversación. Así mismo, será capaz de observar los cambios de tema durante la conversación. Percibirá algunos elementos afectivos fijándose en los cambios de entonación de los interlocutores: el enfado, la broma, la seriedad... Distinguirá los registros más importantes: coloquial/formal, familiar/desconocido... También será capaz de inferir el contexto de lo que ha escuchado.

#### EXPRESIÓN ORAL.

##### Corrección.

En lo que respecta al estadio morfosintáctico, el alumno conocerá las estructuras básicas; pero, de vez en cuando, cometerá errores. Aunque estos errores no serán obstáculo para que el significado de su mensaje sea entendido por los demás interlocutores. Utilizará adecuadamente los sistemas verbales, el ergativo, el relati-

erabili. Oro har, egiten dituen akatsak koiunturalak dira.

Ahoskera eta intonazioari dagokionean, zenbaitetan erdal kutsua antzemango zaion arren, ulergarria izango da.

Hiztegiaren ezagutza bere kontestu ezagunetara mugatzen da, ñabardurak azaldu behar dituen erdarakadak eta bestelako ordainak erabiliz.

#### Egokitasuna.

Elkarreraginezko kontestu orokorretan, nori zuzentzen zaion, zertarako, gaiaren nolakoa... kontuan izanik jakingo du zein erregistro-mota nagusi, nolako doinua, intonazioa... erabili. Hala ere kostatzen da egokia guztietara bere jarduna egokitzen eta zenbaitetan arrotz eta «artifizial» gertatuko da. Gaiari inoiz ihes egingo dion arren, harira itzultzen da gehienetan. Informazioa testu-motak eta zereginak eskatzen duenera egokituko du, alditan alferrikako informazioa emango badu ere. Eta zailtasunak izango ditu bere hiztegia kontestuari egokitzen, hitzen balio semantiko murriztuak duelako.

#### Diskurtsoaren antolaketa.

Elkarrizketa arruntak jarraitzen eta gidatzen dakie frogatuko du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, baita gaiak aldatzerakoan jarraitzen ere. Horretarako hainbat esapidez baliatuko da, oinarriko kohezio-formak erabiliz. Kateamendua nahikoa lineala izango da eta moztua.

Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, diskurtsoa hari nagusi baten inguruan (denbora, espazioa, prozesua...) antolatuko du, nahiz eta erabat ondo jositik ez izan. Oro har, bere jarduna koherentea izango da. Egin ditzake, bai, zenbait nahasketa, atzera-, aurrera-pausu eta zuzenketa, baina entzuleak ez du jarraitzeko eragozpen handirik izango.

#### Aberastasuna.

Maila honi dagozkion testu-motak sortzeko gai izango da. Elkarrizketetan ez da erantzun laburretara mugatuko. Testu zabalxeagoak, hainbat egitura diferente eta hiztegi aberatsa erabiltzen ausartuko da. Arrisku horrek berak, ordea, akatsak egitera bultzatuko du.

Ideiak behin eta molde bakarrean adierazteko joera du. Ez du esandakoa berriro bildu eta beste era batera adierazten, hurrengoarekin lotuz.

#### Jarriotasuna.

Kontestu oso ezagunetan eta ongi bereganatu dituzten jarduna jarraia, suelta izango da. Kontestu berri eta arrotzagoetan, berriz, moteldu egingo da diskurtsoa eta geldialdiak egingo ditu, adiera eta egitura egokien bila, zuzentzeko... Geldiune horiek betelan-hitzez (errepikapenez; mm, eh, zera, ba formaz) estaliko ditu zenbaitetan.

vo, la nominalización y las completivas, aunque algunas veces cometa errores, que casi siempre serán coyunturales.

A pesar de que su pronunciación y entonación no sean las de un hablante nativo, su discurso será comprensible.

Utilizará erderismos, que serán consecuencia de su limitado vocabulario.

#### Adecuación.

En contextos interactivos generales sabrá utilizar los diferentes registros, el tono adecuado... Sin embargo, habrá situaciones en las que tendrá dificultades para adecuar su discurso y éste resultará un poco «artificial». Y aunque alguna vez pierda el hilo de la conversación, volverá a recuperarlo. Sabrá, además, adecuar la información según lo exijan los textos y las tareas, aunque a veces aporte una información un tanto impropia. Y tendrá dificultades para adecuar su vocabulario al contexto porque todavía no ha adquirido un valor semántico amplio de las palabras que utiliza.

#### Planificación del discurso.

El alumno deberá demostrar que sabe guiar y seguir conversaciones sencillas: cuándo comenzar la conversación, cómo continuarla, cómo acabarla y cómo seguirla cuando se cambie de tema. Recurrirá, para ello, a unos mecanismos básicos de cohesión. El encadenamiento de las frases será bastante lineal.

Cuando tenga que contar o describir algo, organizará el discurso según un orden determinado (tiempo, espacio, proceso...), aunque no consiga una total cohesión. Su intervención, a pesar de lo dicho, deberá ser coherente. Podrá equivocarse y autocorregirse, pero el interlocutor no tendrá mayores problemas para entenderle.

#### Riqueza.

El alumno será capaz de crear los tipos de texto correspondientes a este nivel. En las conversaciones no se limitará a intervenciones cortas, sino que se arriesgará a utilizar textos más complejos, con estructuras variadas y amplio vocabulario. Y cometerá errores como consecuencia del riesgo adquirido.

Tenderá a expresar las ideas una sola vez, en lugar de recuperar lo expresado y reconstruirlo de otra manera uniéndolo con lo siguiente.

#### Fluidez.

En contextos muy conocidos y asimilados las intervenciones serán mantenidas. En cambio, en contextos nuevos y extraños ralentizará e interrumpirá su discurso para buscar expresiones y estructuras adecuadas o autocorregirse. Esas interrupciones las compensará recurriendo a expresiones de este tipo: mm, eh, esto, es que, pues, bueno...

## IRAKURMENA.

Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-motak: instrukzioak, narrazioak, deskribapenak, eta testu-erak: oharra, eskutitzak, inprimakiak... Bereizi egiten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak, eta, jabetu egiten da, oro har, kolpetik irakurrita testuaren nondik-norakoaz. Informazio xehea eskuratzeko, berriz, behin baino gehiagotan irakurri eta testuinguruari erreparatu beharra izaten du. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak oraindik ere erabat menderatzen ez dituenek, eta, dituen gabeziak ez testuinguruaz ezta hainbat estrategiaz baliaturik ere, ezin konpentsa ditzakeenez, ñabardura batzuk eta oso noiz-behinka ideia nagusiren bat ere gal dezake. Jardunaren hizkuntz erregistroak gehienetan bereizten ditu.

## IDAZMENA.

## Zuzentasuna.

Maila morfosintaktikoan egindako hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Egitura konplexuetan (erlatibo-koetan...) hutsegite koizturailez gain, oraindik ere, soma liteke hutsegite sistematikoren baten edo besteren azterna.

Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetara mugatzen den hiztegiaren ezagutzak termino orokor eta arruntez (jende, gauza...), eta erdarakadez baliatuzera bultzatuko du ñabardurak adierazteko unean.

Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, batzuetan hutsegiteren bat egin badezake ere. Hutsegiteak, oro har, koizturaileak izango dira, eta ez dute esanahia ilunduko.

## Egokitasuna.

Gaiari noiz edo noiz ihes egin badiezaioke ere hari-ira itzultzen da gehienetan. Badaki, oro har, bereizten errejistro-mota nagusiak: formala eta informala. Hala ere, batzuetan naturaltasuna apurtzen duten eredu fin-koen erabilera antzemango da.

Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantiko guztiak menderatzen ez dituenek, desegoki erabil ditzake batzuetan.

## Diskurtsoaren antolaketa.

Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa egokitu egiten zaizkie, nolabait, testu-motari eta testu-erari, zailtasunak baditu ere. Ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen badaki gehienetan, oinarritzeko kohesio-formak eta esaldi motzak erabiliz. Oraindik ere nahasia izan daiteke noizbait diskurtsoaren haria; horrek, hala ere, ez du irakurketa jasangaitz bihurtzen. Testuari hari logiko baten azternak ageri zaizkio.

## COMPRESIÓN LECTORA.

El alumno sabe distinguir los tipos de texto correspondientes a este nivel: instrucciones, narraciones, descripciones, y géneros textuales como notas, cartas, impresos... También distinguirá las ideas principales y secundarias de un texto, y mediante una lectura rápida se percatará del tipo de texto que tiene delante. En cambio, para conseguir una información concreta del texto tendrá que leerlo más de una vez, fijándose sobre todo en el contexto. Como todavía no domina completamente las expresiones lingüístico-textuales de este nivel ni tampoco es capaz de utilizar estrategias para compensar sus carencias, puede escaparse alguna idea principal o diversos matices que tenga el texto. Por el contrario, sí será capaz de observar los distintos registros lingüísticos que contenga el texto.

## EXPRESIÓN ESCRITA.

## Corrección.

Los errores que cometa en el campo morfosintáctico no deberán ser obstáculo para entender su mensaje. En las estructuras complejas, además de errores coyunturales se le observarán algún que otro error sistemático.

Su conocimiento del vocabulario se limita a los contextos habituales de su entorno y, por tanto, utilizará erderismos para expresar determinados matices del texto.

Su ortografía y puntuación son bastante correctas, aunque de vez en cuando cometa errores. Serán coyunturales y no velarán el significado.

## Adecuación.

Puede perder el hilo del discurso alguna vez, pero al final lo recuperará. Sabe distinguir los registros formal e informal. Sin embargo, se le apreciará una tendencia a utilizar modelos fijos que se alejan de la naturalidad.

Algunas palabras no las utilizará adecuadamente porque todavía no domina el variado valor semántico que puedan tener según el contexto.

## Planificación del discurso.

Aunque tendrá dificultades, será capaz de adecuar la estructura del discurso y la organización de los párrafos al tipo de texto y a los géneros textuales. Generalmente sabrá distinguir y unir las ideas principales y las secundarias, utilizando mecanismos de cohesión y frases cortas. El hilo del discurso puede ser todavía un poco confuso, lo que no será obstáculo para realizar una lectura cómoda del mismo. De todos modos, al texto se le vislumbra un hilo discursivo lógico.

## Aberastasuna.

Maila honetako testu-mota eta testu-era gehienak, oro har, idazten badaki. Hala ere, molde bereko joskerrez baliatzeko joera erakutsiko du batzuetan eta ideien nahiz egitura edota hiztegiaren zenbatekoa ikusita antzeman egiten zaio oraindik ere badituela zailtasunak testua dagokion neurrian osatzeko. Nabaria da, oraindik ere, erdal kutsua testua zuzena izan badaiteke ere.

2. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.  
ENTZUMENA.

Ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertu eta jarraitzeko gai izango da, baita narrazio eta deskribapenak ulertzeko ere.

Bere kidekoekin nahiz jatorrizko hiztunekin ohiko gaietara buruzko solasaldi eta jardunetan aritzeko behar adinako ulermen-maila izango du eta orokorrean hariari jarraituko dio; baina, hiztunaren hizketa oso kolokiala denean eta gaia ez hain ezaguna, hiztunen aldetik azalpen eta errepikapen gehiago eskatuko ditu. Edonola ere, ez da komunikazioa etengo.

## MINTZAMENA.

## Zuzentasuna.

Maila morfosintaktikoan oinarritzko egiturak ezagutzen ditu eta orokorrean zuzen erabiltzen ditu bere ahozko adierazpenean. Dena den, gaiaren konplexutasunaren arabera batez ere, akatsen bat edo beste egin dezake eta erdal kutsua, oraindik ere, antzemango zaio ahoskera eta intonazioan.

Lexikoaren ezagutza zabala du, ulermenean batez ere; horregatik hitz egitean erdarakadatarara jo behar izango du hitz egokiena aurkitzeko denbora faltan.

## Egokitasuna.

Elkarreraginezko kontestu orokorretan ez du arazorik izango gaia, nori zuzentzen zaion, zertarako, eta abar jakinda erregistroa aukeratzeko eta egokitzeke. Hala ere, kosta egingo zaio bere jarduna egokitzen gaia oso ezaguna ez duenean eta jatorrizko hiztunekin aritu behar duenean.

## Diskurtsoaren antolaketa.

Bere erabilera esparruko elkarrizketetan parte hartzen dakiela frogatuko du: hasiera nola eman, nola jarraitu, nola bukatu, gaiak aldatzerakoan nola jarraitu baita ere. Horretarako erabiliko dituen esaldiak ez dira laburrak izango, txanda laburreko adierazpenak egingo ditu eta diskurtsoaren hariari erreparatzeko ez da oztoporik sortuko. Hala ere, izan ditzake zenbait hutsune eta atzera-aurrera ibili beharra izango du zenbaitean, baina entzuleak ez du orokorrean jarraitzeko arazorik izango.

## Riqueza.

El alumno sabe escribir, en general, los tipos de texto y géneros textuales correspondientes al nivel. Sin embargo, mostrará tendencia a utilizar una construcción de frases del mismo tipo. Y tendrá problemas para componer el texto cuando la cantidad de ideas, estructuras y vocabulario sea abundante. Aunque el texto pueda ser más o menos correcto, todavía se notará la influencia de la lengua materna.

CRITERIOS PARA EVALUAR EL SEGUNDO NIVEL.  
COMPRESIÓN ORAL.

El alumno será capaz de entender las instrucciones, explicaciones y argumentos que de forma oral se le transmitan; así como las narraciones y descripciones.

Tendrá el nivel de comprensión necesario para entender las intervenciones y conversaciones sobre temas que habitualmente trata con hablantes nativos o con sus compañeros de clase; pero cuando el modo de expresión del interlocutor sea muy coloquial y el tema desconocido, le pedirá que explique y repita parte del discurso. A pesar de eso, no se interrumpirá la comunicación.

## EXPRESIÓN ORAL.

## Corrección.

En lo que respecta a la morfosintaxis, conoce las estructuras básicas y, en general, las utilizará con corrección; sin embargo, puede cometer algún error según la mayor o menor complejidad del tema. Todavía se le apreciará un tinte extraño en la pronunciación y entonación.

El alumno tiene un conocimiento amplio del léxico en lo que respecta a la comprensión oral; pero, cuando quiera expresarse oralmente recurrirá a erderismos para ahorrar tiempo.

## Adecuación.

En contextos interactivos generales no tendrá dificultades para saber a quién va dirigido el tema y para qué. Sabrá elegir el registro y adecuarlo al interlocutor. Sin embargo, le costará un poco más adecuar su intervención cuando el tema le sea desconocido y tenga enfrente hablantes nativos.

## Planificación del discurso.

Deberá demostrar que sabe tomar parte en conversaciones de su entorno: cómo comenzar, cómo seguir, cómo terminar y cómo seguir cuando se cambia de tema. Se expresará en turnos cortos, aunque no necesariamente con frases cortas; y no le resultará difícil seguir el hilo del discurso. Sin embargo, puede tener interrupciones y momentos de duda, que no serán obstáculo para que el interlocutor pueda entenderle.

**Aberastasuna.**

Maila honi dagozkion testu-motak sortzeko gai izango da eta lexiko aberatsa erabiltzen saiatuko da. Baina zenbaitetan akatsak egingo ditu, batez ere adierazpen luzea egiten saiatzen denean, jatorrizko hitzun batekin hitz egin behar duenean eta gaia gehiegi ezagutzen ez duenean. Horrelakoetan kosta egingo zaio esandakoa beste era batean adierazten.

**Jarriotasuna.**

Kontestua ezaguna duenean eta beste ikasleekin ari denean jarduna naturala izango da. Jatorrizko hitzuneekin eta gai ezeguneren aurrean, berriz, motelago hitz egingo du, pentsatu beharra izango baitu. Dena dela, nahiz eta polikiago aritu, hutsuneak betetzeko gai izango da.

**IRAKURMENA.**

Badaki maila honi dagozkion kontestu ezagunetan eta ohiko gaien inguruko testu-motak bereizten. Testuaren nondik norakoaz berehala jabetzen da eta ez du, oro har, oztoporik informazio xehea ere ateratzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak ez ditu oraindik ere erabat menperatzen eta horregatik, tarteka, xehetasunez eta, batez ere, ñabardurez jabetzeko izan dezake testua behin baino gehiagotan irakurtzeko premia; hala ere, batzuk gal ditzake. Jardunaren hizkuntz erregistroak bereizten ditu gehienetan.

**IDAZMENA.****Zuzentasuna.**

Testua luzea denean eta egitura konplexuak erabiltzean maila morfosintaktikoan egiten dituen hutsegiteek ez dute esanahia eragotziko.

Bere mundu-ezagutzatik hurbileko gaien inguruko lexikoaren ezagutza zabala du; hala ere, zenbaitetan erdarazko hitza euskaratu egiten du eta euskarazko hitz jatorra balitz bezala erabiltzen. Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, zenbaitetan hutsegiteren bat egin badezake ere.

**Egokitasuna.**

Gaia bere mundu-ezagutzatik eta bere interesetik hurbilekoa denean ez du arazorik bere adierazpena egokitasunez egiteko. Nori zuzentzen zaion, zertarako, eta abar... kontuan izanik idatzizko testuak behar duen formaltasun-mailaz egingo ditu. Hala ere, zenbait idatzietan ereduaren erreferentzia antzemango zaio, idatziak artifizial kutsua izango duelarik.

**Diskurtsoaren antolaketa.**

Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa egokitu egiten zaizkie, gehienetan, testu-motari eta testu-erari. Ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lo-

**Riqueza.**

Será capaz de crear los tipos de texto correspondientes al nivel e intentará utilizar un léxico rico. Pero, en algunas ocasiones, cometerá errores, sobre todo cuando intente realizar una intervención más larga ante hablantes nativos y sobre un tema desconocido. Le costará expresarse de forma distinta a la ya realizada.

**Fluidez.**

Tendrá una actuación natural cuando el contexto sea conocido e interaccione con los compañeros de clase. Con hablantes nativos y sobre temas desconocidos hablará de un modo más pausado, puesto que necesitará tiempo para pensar lo que va a decir. Aunque hable más despacio, será capaz de compensar sus lagunas.

**COMPRESIÓN LECTORA.**

En contextos conocidos y tratando temas habituales, sabrá distinguir los tipos de texto que correspondan al nivel. Igualmente, sabrá conseguir una información concreta de un texto. Todavía no domina totalmente las expresiones lingüístico-textuales del nivel y, por tanto, a veces tendrá necesidad de releer el texto para observar ciertos matices pasados por alto en la primera lectura; y algunos puede perderlos. En la mayoría de las ocasiones distinguirá los diferentes registros lingüísticos.

**EXPRESIÓN ESCRITA.****Corrección.**

Los errores morfosintácticos que pueda cometer, cuando el texto sea extenso y las estructuras complejas, no obstaculizarán el significado.

Tiene un conocimiento amplio del léxico cuando los temas le son cercanos; sin embargo, algunas veces recurrirá a su lengua materna en busca de una palabra, la cual utilizará en la lengua meta.

Utiliza correctamente la ortografía y marcas de puntuación, aunque ocasionalmente pueda cometer algún error.

**Adecuación.**

Cuando trate temas de su interés o próximos a su conocimiento del mundo no tendrá dificultades en expresarse adecuadamente. Adecuará el registro y el nivel de formalismo al destinatario y al objetivo de la escritura. Sin embargo en algunos escritos serán notorios los modelos de referencia, teniendo los escritos cierto cariz de artificialidad.

**Planificación del discurso.**

En la mayoría de los casos sabrá organizar los párrafos y la estructura de sus escritos conforme a los tipos de texto propios de este nivel. Será capaz de discernir

tzen badaki eta gaiak eskatzen dituen xehetasunak ematen ere saiatzeko da; horretarako, orokorrean, antolatzaile, kohesio-forma, eta abar egokiak erabiltzen ditu.

Hala ere, zenbait testu-motetan, azalpenean kasu, nahasia izan daiteke diskurtsoaren haria; baina testua oztopo handirik gabe irakurri ahal izango da.

#### Aberastasuna.

Maila honi dagozkion testuak idazteko ez du aparteko oztoporik izango. Hala ere, gaia oso ezaguna ez duenean era edo molde bereko egitura, esapide eta hitzak erabiltzera mugatuko da. Erdal kutsua ere har dezakete kasu hauetan eta idazlanak sinpleak eta pobretxura dutenak gerta daitezke.

### 3. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK. ENTZUMENA.

Kultura orokorraren mailan ahoz eginiko edozein euskal hizketa erraz ulertuko du. Gaiaren inguruko informazio orokorra eta xehea arazorik gabe jasoko ditu. Dena den, zenbaitetan arazoak izan ditzake hizkera kolokialean eginiko hizketaldiko ñabardurak jasotzeko eta eragozpenak gainditzeko errepikatzea eskatuko du.

#### MINTZAMENA.

##### Zuzentasuna.

Alderdi morfosintaktikoari dagozkion formak eta egiturak ezagunak baditu ere, bere ahozko adierazpenean akats gutxi batzuk izan ditzake. Akats horiek guztiz koiunturalak izango dira bapatekotasunak eta jardunaren nondik norakoak sortutakoak, hain zuzen ere.

Alderdi fonologikoari dagokionez euskal fonemen (fonemen ahoskera, hitz barneko aldaketak, hitz-kateak) erabilera zuzena egingo du; intonazioari dagokionean, aldiz, zenbait arazo izan ditzake, baina arazo horiek ez dute hizketaren ulergarritasuna eragotziko.

Bestalde, lexikoaren ezagutza zabala izango du. Hala ere, xehetasunak eta ñabardurak ematerakoan hitz zehatza aurkitu ezean hainbat estrategiaz baliatuko da: berformulazioa, itzulingurua, etab.

##### Egokitasuna.

Ahozko adierazpenean nori zuzentzen zaion, zertarako, gaiaren nolakoa, ... kontuan izanik ez du eragozpenik izango erregistro-mota aukeratu eta erabiltzeko. Azalpen eta argudioetan batik bat eta gaia ez badu oso ezaguna, informazioa testu-mota horien egiturara eta zereginetara egokitzeko zailtasunak aurki ditzake.

y relacionar las ideas principales y las secundarias y se esforzará en proporcionar los detalles que exija el tema a tratar, haciendo uso de conectores y organizadores textuales adecuados.

De todos modos, en algunos tipos de textos, como los expositivos, el hilo del discurso puede resultar un tanto confuso, sin que ello suponga mayor dificultad para la lectura del texto.

#### Riqueza.

El alumno no tiene especial dificultad en escribir los tipos de texto y géneros textuales correspondientes al nivel. Sin embargo, en temas que no le son muy familiares, tenderá a utilizar giros, construcciones y vocabulario restringidos. En esos casos se notará la influencia de su lengua materna y puede que los escritos resulten simples y un tanto pobres en apariencia.

### CRITERIOS PARA EVALUAR EL TERCER NIVEL. COMPRESIÓN ORAL.

El alumno deberá comprender con facilidad textos orales de nivel cultural medio. Discernirá sin dificultad entre la información general de un tema y los detalles. De todas maneras, podrá tener dificultades para captar ciertos matices lingüísticos que surjan en las conversaciones más coloquiales, en cuyo caso tendrá recursos para preguntar y aclarar las dudas.

#### EXPRESIÓN ORAL.

##### Corrección.

Aunque conozca todas las estructuras y formas morfosintácticas podrá cometer pequeños errores al hablar. Errores coyunturales debidos a la presión de actuar en conversaciones espontáneas.

En lo que respecta a la fonología sabrá utilizar con corrección los fonemas: su pronunciación, variaciones internas de las palabras, palabras encadenadas. Sin embargo, se le admitirán algunos defectos de entonación siempre que no dificulten la comprensión.

Tendrá un amplio conocimiento del vocabulario. Cuando tenga necesidad de concretizar o matizar y no encuentre la palabra precisa deberá saber recurrir a estrategias compensatorias tales como las reformulaciones, circunloquios, perífrasis...

##### Adecuación.

No deberá tener problemas para adecuar el registro de su habla dependiendo de la finalidad, quién es su interlocutor, su nivel de conocimiento etc. No obstante cuando tenga que argumentar y dar explicaciones de temas que no domina podrá tener dificultades para estructurarlos.

### Diskurtsoaren antolaketa.

Kultura orokorraren mailako elkarrizketak gidatzen eta jarraitzen dakiela frogatuko du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, gaiaz aldatzerakoan erantzuten, etab. Horretarako adierazpen bakoitzari dagokion esapide, antolatzaile, kohesio-forma, eta abarrez baliatuko da.

Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, azaldu eta argudiatzerakoan diskurtsoa ondo antolatua eta josia izango da, bere jarduna koherentea izango delarik. Hala ere, izan ditzake zenbait zalantza eta izango du zenbaitetan atzera-, aurrera-pauso eta zuzenketak egin beharra, herri-hizkera erabiltzen duen solaskidearekin ari denean edo gaia ezezaguna edota espezializatua baldin bada, batez ere.

### Aberastasuna.

Maila honi dagozkion testuak (elkarrizketak, narrazioak, deskribapenak, azalpenak, argudioak,...) ahoz sortzeko gai izango da, baina testuaren luze-laburra beti ere egoerari, hartzaileari, gaiaren ezagutzari lotuko zaizkio. Alderdi morfosintaktikoaren ezagutza zabala eta lexiko aberatsa izango duenez, guztia erabiltzera arriskatuko da eta arriskatzeak berak zenbait akats egingo bultzatuko du.

Ideia nagusiak eta baita zehaztasunak ere behin baino gehiagotan esango ditu, esandakoa bilduz eta beste era batean adieraziz eta aldi berean hurren esango duenarekin lotura eginez.

### Jarriotasuna.

Elkarreraginezko kontestu ezagunetan (familiarreko, aisialdiko, lagunarteko... esparrutan) jarduna jarraia eta naturala izango du. Gai ezezagunen inguruan bere iritzia edota azalpena egin behar duenean, berriz, moteldu egingo da diskurtsoa ahalik eta egitura, forma, esapide edota adierazpiderik egokienaren bila, berau aurkitu arte. Geldiune hauek betelan hitzez estaltzeko gai izango da, aipatu geldiuneak ia nabarmenduko ez direlarik.

### IRAKURMENA.

Badaki kultur orokorraren mailan sortzen diren testu-motak bereizten, baita hauek duten egitura ere. Testuari kohesioa eta koherentzia emango dioten adierazpide linguistiko-testualak ere bereizten ditu. Ideia garrantzitsuenak eta azalekoak arazorik gabe antzematen ditu eta testuinguruaz ere jabetzeko gai da. Dena den, testuaren egitura korapilotsuegia suertatzen zaionean behin baino gehiagotan irakurri behar izaten du eta zenbaitetan xehetasunen bat edo beste galtzen du. Bestalde, ñabardurei erreparatzeko testuinguruaz eta hainbat estrategiaz baliatuko bada ere, noiz edo noiz, gaiaren zailtasun-maila kontuan izanik, eragozpenak izan ditzake.

### Planificación del discurso.

Deberá demostrar que sabe controlar y seguir el hilo de conversaciones de carácter general: cómo iniciarlas, cómo proseguirlas, cómo finalizarlas, introducir otro tema, etc. Por supuesto sabrá utilizar los mecanismos de cohesión, organizadores textuales, en suma, todos los recursos correspondientes a las operaciones del habla mencionadas.

Cuando cuente, describa, explique o rebata algo su discurso será coherente, bien organizado y cohesionado. Con todo, ante temas que desconozca o sean muy técnicos, o con interlocutores que utilicen un habla localista podrá mostrar algunas dudas y rectificar.

### Riqueza.

Será capaz de producir todos los discursos exigibles en este nivel (conversaciones, narraciones, descripciones, explicaciones...), pero la extensión del discurso estará condicionada por el conocimiento que tenga del tema, el interlocutor y el contexto. Al tener un conocimiento amplio de la morfosintaxis y riqueza de vocabulario, podrá arriesgar más en el uso del euskera lo que, por otra parte, hará aumentar la posibilidad de cometer errores.

Recapitulará y reformulará tanto las ideas principales como los detalles de su discurso haciendo referencia a lo que posteriormente vaya a expresar.

### Fluidez.

Participará con fluidez y de un modo natural en situaciones que faciliten la interacción oral como son todo tipo de conversaciones que se dan en su entorno familiar o de amigos. Cuando tenga que opinar o dar alguna explicación sobre temas que no domina ralentizará su habla para poder encontrar la expresión y el contenido adecuado. Durante estas pausas, y con el fin de disimularlas, utilizará recursos lingüísticos de distracción.

### COMPRESIÓN LECTORA.

Sabrá distinguir las diferentes clases de textos cuyo contenido sea de cultura general. Identificará los diferentes elementos lingüísticos y textuales que confieren cohesión y coherencia a un texto. Sabrá captar sin ninguna dificultad tanto las ideas principales como las secundarias, así como el contexto en el que están expresadas. De todas formas, tendrá que releer los textos cuya estructura sea compleja y aún así cabe la posibilidad que se le escape más de algún detalle. Por otro lado, aunque sea capaz de valerse de contexto y utilizar estrategias adecuadas, a veces, si el tema le resulta complejo, podrá tener dificultades para percibir ciertos matices.

## IDAZMENA.

## Zuzentasuna.

Maila honi dagozkion testuak idazterakoan ez du alderdi morfosintaktikoan aparteko arazorik izango, zenbaitetan adierazi beharrekoaren konplexutasunagatik edo, sintaxi arloko akatsen bat egiten badu ere. Dena den, ez du akats sistematikorik egingo.

Lexiko aberatsa du erabiliko dituen sinonimo eta berformulazio eta abarretan ikusi ahal izango denez, eta ez du ortografia eta puntuazio-marken erabileran oztoporik.

Gertatzen diren hutsegite bakan horiek gaiaren eta goeraren berezitasunei zor zaie.

## Egokitasuna.

Gaia kultur orokorraren mailaren eremuko izanik, bere mundu ezagutzatik eta interesetik urrunekoa bada, zenbaitetan arazoak izaten ditu adierazi nahi duena egokitasunez adierazteko: alferrikako informazioa emango du eta baita hitz desegokiak erabili ere, besteak beste, gaia guztiz menperatzen ez duelako. Bestelakoetan ez du aparteko arazorik izango kontestuari dagokion errejistro-mota aukeratzeko.

## Diskurtsoaren antolaketa.

Maila honetan testuak (gutunak, gai baten inguruko azalpenak, argudioak, ipuinak...) idazterakoan hauen egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkio testu-motari. Ideia garrantzitsuak, azalekoak eta xehe-tasunak ondo bereiziko ditu eta bata bestearenganako loturak ondo egingo ditu testu-mota, kontestua eta abar kontuan hartuz.

Testua lehen irakurketan ulertzeko ez da inongo oztoporik izango.

## Aberastasuna.

Maila honi dagozkion testuak idazteko gai izango da eta hauek osatzeko erabiliko dituen ideia, egitura edota lexikoaren zenbatekoak eta nolakoak hizkuntzaren ezagutza ona duela adieraziko dute.

## EXPRESIÓN ESCRITA.

## Corrección.

No tendrá problemas morfosintácticos para escribir la clase de textos exigibles en este nivel, aunque se le puede permitir pequeños errores en la sintaxis cuando quiera expresar algo complejo. De todas formas, no deberá cometer errores sistemáticos.

No tendrá dificultades en ortografía ni con los signos de puntuación. Al reformular conceptos, al utilizar sinónimos demostrará un alto dominio del vocabulario.

Resumiendo, los errores esporádicos que pueda cometer se deberán a la complejidad del tema y del contexto.

## Adecuación.

Cuando trate de temas que aún siendo de cultura general le resulten extraños o lejanos a su interés podrá tener dificultades en expresarse adecuadamente: dar información no pertinente, utilizar palabras no adecuadas... Aparte de eso, no tendrá dificultades para elegir el registro adecuado a cada contexto.

## Planificación del discurso.

Sabrà organizar los párrafos y la estructura de sus escritos conforme a los tipos de texto exigibles en este nivel. Una vez haya distinguido entre las ideas más importantes, las secundarias y los detalles sabrà como unir las teniendo en cuenta el tipo de texto y el contexto.

El texto no deberá presentar ninguna dificultad para ser entendido en la primera lectura.

## Riqueza.

Al escribir cualquiera de los textos exigibles en este nivel mostrará un buen dominio del idioma tanto por la diversidad como por la calidad de las ideas, de las estructuras y del vocabulario usado.